

4. ATALA

PRODUKTUEN ETA ZERBITZUEN FITXAK

4.22. BIDE-

GARBIKETA

ETA

HONDAKIN-

BILKETA

Sumarioa

1. Alderdi orokorrak
2. Jardunbide operatibo egokiak
3. Kontuan hartu beharreko ingurumen-alderdiak eta alderdi teknikoak
4. Ingurumen-ziurtagiriak
5. Merkatuaren egoera: dagoen eskaintza
6. Ingurumen-irizpideak





4.22. Bide-garbiketa eta hondakin-bilketa

1. Alderdi orokorrak

1.1. Zer sartzen da barruan?

Bideak garbitzeko zerbitzuen zeregina hau da: bideak eta bide horien ondoan dauden gune publikoak eta pribatuak edo bide horien baldintza estetikoetan eta higienikoetan eragina izan dezaketen guneak eskuz edo baliabide mekanikoen bidez garbitzea. Bide publikotzat hartzen dira bide horien osagai diren elementu guztiak edo bide horietan dauden elementu guztiak, hala nola hiri-altzariak, txorakoak, eta abar.

Hondakinak jasotzeko zerbitzuen zeregina hau da: edukiontziak instalatzea, birkokatzea eta kentzea; edukiontziak, bilketa-puntuak eta bilketarako eta garraiorako ekipoak eta instalazioak mantentzea eta garbitzea; ekipoak eta instalazioak legezkatzea; zerbitzua zuzentzea, koordinatzea eta kontrolatzea; eta informazio-sistemak kudeatzea.

Bi zerbitzu hauek kontratazio-agiri berean sartuta egon daitezke edo independenteki kontratatu daitezke.

Administrazio batetik bestera zerbitzuaren kontratazio-prozedurak eta barnean hartzen dituzten elementuak nahiko ezberdinak diren arren, kapitulu honen xedea bideak garbitzeko eta hondakinak biltzeko kontratuan sartu ohi diren ibilgailuen, makinariaren, produktuen eta prozeduren ingurumen-jokaerarekin lotutako alderdiak jorratzea izango da.

1.2. Non gaude?

Gaur egun administrazio-mota zein den kontratuak ezberdinak izaten dira; administrazio batzuetan bide-garbiketa eta hondakin-bilketa batera lizitatzen dira eta beste administrazio batzuetan bereizirik.

Bide-garbiketa publikoa eta hondakin-bilketa udalek beren gain har ditzaketen zerbitzuetariko batzuk dira. Kontuen Auzitegiaren 2011ko txostenaren arabera, Estatuan bideak garbitzeko zerbitzuen % 81 zuzenean kudeatzen dira. Baina 5.000 biztanle baino gehiagoko udalerrietan kudeaketa eskuordetua edo zeharkako kudeaketa % 43ra igo da. Udalerriko hondakinak jasotzeko zerbitzua, berriz, partzuergoek eta mankomunitateek hartzen dute beren gain kasuen % 49an. Kudeaketa zuzena udalerrien % 14k soilik egiten dute.

Bi zerbitzu horietan ingurumen-irizpideak ezartzea oso eredugarria izan daiteke, herritarrek oso agerian baitituzte.

Administrazioari zerbitzu hori ematen dioten enpresa handiak eta ETEak daude. Oro har, enpresa handiek kontratu handiak hartzen dituzte beren gain (mankomunitateen eta udal handien kontratuak), eta enpresa txikiak udalerrri txikiagoetako kudeaketaz arduratzen dira.



1.3. Nola jardun?

Bide-garbiketako eta hondakin-kudeaketako kontratueta aintzat hartu behar dira erabiliko diren produktuen ingurumen-baldintzak, gauzatuko diren jardunbideak eta prozedurak, eta kontratua gauzatzeko modua.

Bide-garbiketaren eta hondakin-bilketaren arloan ingurumen-ikuspegia sartzeko, eta, horrenbestez, ingurumen-eragina eta langileen eta herritarren osasunaren gaineko inpaktua murrizteko, neurriak hartuko dira, eta neurri horiek honako alderdi hauek izango dituzte ardatz:

- Ahalik eta ur gehiena aurrezte eta energia gutxiena kontsumitzea ahalbidetzen duten teknikak, prozedurak eta zerbitzua antolatzeko moduak aukeratzea.
- Ingurumena gehiago zaintzen duten produktuak eta makinak erabiltzea (zabor-poltsak, garbiketa-produktuak, hondakinak biltzeko edukiontziak, etab.).
- Hondakinak biltzeko eta bideak garbitzeko ibilbideak kudeatzea eta optimizatzea.
- Ingurumen-inpaktu txikiagoa eragiten duen ibilgailu-flota bat edukitzea.
- Langileei ingurumen-sentsibilizaziorako etengabeko prestakuntza ematea, eta prestakuntza horretan baldintza-orrian zehaztuta dauden jasagarritasunarekin lotutako alderdi guztiak sartzeara.

Ingurumen-alderdi horiez gain, zerbitzu-mota hauek eragiten duten ingurumen-inpaktua murrizteko ezinbestekoa da zerbitzuaren beraren diseinuan ahalegin bat egitea udalari eta mankomunitate guztien beharretara egokitu daitezen. Bide horretan:

- Kontuan izan behar da eremu bakoitzaren erabilera-intentsitatea garbiketa-eragiketen maiztasuna ezartzeko.
- Kontuan izan behar da biztanleriaren dentsitatea edukiontzi-kopurua eta bilketa-maiztasuna ezartzeko.

Azkenik, nabarmentzekoa da oso garrantzitsua dela kontratua behar bezala dimentsionatzea han ingurumen-irizpideak ezartzean. Bide horretan kontuan hartu behar da lehiaketara aurkeztuko diren enpresen izaera, eta ETE-eraztu egingo zaie lehiaketa horietarako sarbidea. Enpresa handi guztiek betetzen dituzte ingurumen-irizpide batzuk, baina enpresa txiki eta ertainentzat zailagoa da haiek betetzea. Ingurumen-irizpideei dagokienez baldintza-orrian egingo den eskakizun-maila zehaztu aurretik hausnarketa bat egitea gomendatzen da:

- Oinarrizko maila: Edozein tamainetako enpresek beren gain erraz har ditzaketen irizpideak dira.
- Maila aurreratua: Enpresa handiek erraz har ditzakete beren gain irizpide hauek; alabaina, enpresa txikientzat maila aurreratuko irizpideak dira.
- Maila bikaina: Irizpideak zorrotzagoak dira, baita enpresa handientzat ere.

2. Jardunbide operatibo egokiak

2.1. Nola murriztu kontsumoa

Bideak garbitzeko eta hondakinak biltzeko zerbitzuak ura eta erregaiak kontsumitzen ditu batak bat.

Bideak garbitzeko lanetan kontsumitzen den ura murrizteko makinerian ura aurrezteko sistemak ezar daitezke, ureztatzeak murriztu daitezke edo mekanizatutako garbiketa-lanak sendotu daitezke. Bestalde, edateko ur bihurtu ez den ura edo garbiketa-lanen ondoren berreskuratu den ura erabiltzeko aukera ere kontuan izatea garrantzitsua da.

Erregaien kontsumoari dagokionez, ezinbestekoa da kontuan hartzea kamioien flotan eta zerbitzua emateko erabiltzen diren beste ibilgailuetan ingurumen-hobekuntzak egin behar direla, eta ibilgailu horien ibilbideak optimizatu egin behar direla. Horren adibide bat betetzea aurreikusten duten sistema dinamikoak dira; sistema horien bidez bilketarako unerik egokiena zein den jakin daiteke eta bilketarako ibilbiderik onena kalkulatu daiteke.

2.2. Nola antzeman benetako beharrak

Zerbitzu hauen lizitazioa egiteko behar partikularrak islatzen dituen garbiketarako eta hondakin-bilketarako benetako plan bat ezarri behar da. Plana herri eta mankomunitate bakoitzaren beharretara egokituz gero bideak garbitzeko eta hondakinak biltzeko eragiketak optimizatzeari lortuko da, ibilbideak eta maiztasunak egokitu ahal izango baitira erregaiak eta emisioak murrizteko, pneumatikoen bizi erabilgarria luzatzeko, eta abar.

Horretarako, behar duten garbiketa-mailaren arabera definitu behar dira eremuak, eta eremu horietako bakoitzean erabili beharreko baliabideak eta maiztasunak zehaztu behar dira. Hondakin-bilketari dagokionez hausnarketa berbera egin behar da; eremuak behar duten kudeaketaren arabera banatu beharko lirakeke, eta eremu horietako bakoitzean ezarri beharreko baliabideak eta maiztasuna zehaztu beharko lirakeke.

Esate baterako, udalerriko eremuak kategoriatan banatzea proposatzen da, bilketa-maiztasun handiena eta baliabide gehienak behar dituztenetik bilketa-maiztasun txikiena eta baliabide gutxiak behar dituztenera. Hauek izan daitezke hierarkia horretan sailkapena egiteko irizpideak:

- Ibilgailuen eta oinezkoen zirkulazioak duen garrantzia.
- Jarduera nagusia.
- Hondakin-motak eta jatorriak.
- Egin daitezkeen garbiketa-eragiketen zailtasun nagusiak.
- Bide-sarearen faktore fisikoak eta geometrikoak.
- Biztanleriaren dentsitatea.
- Aurreko kontratuetan jasotako datuak zeinek berariazko arreta behar dela erakusten duten.

2.3. Zer eta nola kontratatuko dut

Bideak garbitzeko zerbitzuen lizitazioetan honako hauek sartzen dira:

- Zerbitzuak barnean hartzen dituen atazak, hala nola egunerokoan garbitu behar diren eremuak eta elementuak, ohiz kanpoko zerbitzuak eta aurreko zereginetatik eratorritako hondakinen bilketa.
- Egin beharreko garbiketa-lanen deskribapena: Eskuz erraztatzea, baliabide mekanikoen bidez erraztatzea, urarekin garbitzea, paperontziak ordeztzea eta jartzea, jazoeretan garbiketa bereziak egitea, eta abar.



- Udalerriko eremu bakoitzerako zehaztutako garbiketa-maila eta eremu bakoitzerako zehaztutako baliabideak eta maiztasunak.
- Zerbitzuaren antolaketarekin, planifikazioarekin eta kontrolarekin lotutako alderdiak.

Hondakinak jasotzeko lizitazioetan udalerrian sortutako hondakinen bilketa- eta garraio-funtzioak sartzan dira, eta hauek dira bete beharreko eginkizunak:

- Bereizirik bildu behar diren hondakin-zatikiak eta zatiki bakoitzaren bilketa-maiztasuna definitzea.
- Edukiontzia instalatzea, mantentzea eta aldatzea: Jada eskuragarri daudenak erabili ohi dira, baina batzuetan lizitatuzaileek edukiontzi berriak proposatu ditzakete.
- Bilketa-baliabideak: Ibilgailuek eta udalak dituen edukiontzien bateragarriak izan behar dute.
- Hondakinak biltzeko eta aldi baterako biltegitatzeko instalazioak.
- Puntu Garbia kudeatzeko lanak.

Lizitatuzaileek zerbitzua emateko baliabide materialak eta pertsonalak proposatu behar dituzte. Kasu batzuetan baliabide materialak udalarenak dira, eta enpresa esleipendunei haiek zaintzea dagokie; alabaina, enpresak jarri baditu material horiek (ibilgailuak, tresnak eta makinaria), garrantzitsua da horiei ingurumen-irizpideak ezartzea.

Lizitatuzailearen esku dauden alderdi guztietan ingurumen-klausulak sartu ahalko dira; alderdi horiek erabiliko diren baliabide materialak eta zerbitzuak eragindako ingurumen-inpaktua minimizatzen duten kudeaketa-proposamenak dira, batez ere.

2.4. Nola kudeatu hondakinak

Eguneroko garbiketa-lanetan sortutako hondakinei dagokienez, kontratuan sartutako zerbitzu bakoitzak eragindako hondakinen bilketari eta garraioari buruzko azterketa xehatu bat proposatu beharko du lizitatuzaileak. Azterketa horretan puntu hauek sartuko dira:

- Erraztutako produktuak, azoketako eta ferietako produktuak eta abar biltzea edukiontzien bidez.
- Hobien garbiketarik eratorritako produktuak, hildako animaliak eta abar jasotzea.
- Zerbitzua gauzatzean bildu daitezkeen gai bereziak eta arriskutsuak tratatzea.

Hondakin-bilketak eta -garraioak ez dute jarduerak berak eragindako hondakin asko sortzen. Zerbitzuaren helburua da udalerrian sortutako hondakinak zatika jasotzea eta hondakin arriskutsuak bilduz gero, baimendutako kudeatzaileen bidez tratatzea.

3. Kontuan hartu beharreko ingurumen-alderdiak eta alderdi teknikoak

3.1. Ibilgailuak

Bideak garbitzeko eta hondakinak biltzeko zerbitzuak gauzatzean ezinbestekoa da ibilgailuak behar bezala aukeratzea zerbitzuak eragindako inpaktua murrizteko. Gutxienez araudi hauek beteko direla bermatu behar da:

- Emisio kutsatzaileei buruzko 2011/88/U Zuzentaraua betetzea.
- Euro V araudia betetzea.
- Pneumatikoei buruzko 661/2009 araudia (EB) betetzea.
- Zarata-emisioei buruzko Europar Batasuneko 540/2014 Araudia betetzea I. Faserako III. Eranskinari jarraikiz.

Bestalde, hondakin-fluxua handia den kasuetan (bilketa gordinetan eta ontzi-bilketan, adibidez) bilketako ibilgailuek trinkotze-sistemak izan behar dituzte; hala, hondakinen tamaina murriztuz kamioiaren edukiera optimizatu egingo da eta bidaia-kopurua murriztu egingo da.

Bestalde, kontuan izan behar dira ibilgailuen bizi erabilgarria luzatzea ahalbidetzen duten alderdiak.

3.2. Garbiketa-produktuak

Zerbitzua gauzatzeko erabiliko diren garbiketa-produktuek eragiten duten inpaktuaren murrizketa bermatzeko, enpresa esleipendunak erabiliko dituen produktuen zerrenda bat aurkeztuko du eta zerrenda horretan produktu horien aplikazio-gainazala, funtzioa eta segurtasun-fitxa jasoko ditu.

Bideak garbitzeko eta hondakinak biltzeko zerbitzuek oso gainazal handietan egiten dute lan; hori dela eta, garbiketa-produktuek eragiten duten inpaktua oso handia izaten da. Inpaktu hori ahalik eta gehien minimizatzeko modu bat hau da: baldintza-orrian bertan eskatzea produktu horiek, osagai dituzten konposatu kimikoei dagokienez, I motako ekoetiketa batean (Europako Etiketa Ekologikoan edo Beltxarga Zuria etiketan) ezarritako irizpideak bete ditzatela.

Giza osasunari eragin diezaieketen istripuak saihesteko eta isurketak ekiditeko, garbiketa-produktuen ontziek behar bezala etiketatuta egon behar dute eta dosifikatze-aparatu zehatzak izan behar dituzte.

3.3. Uraren kudeaketa

Uraren kudeaketa egokia oinarritzeko faktorea da bideak garbitzeko zerbitzuan ingurumen-jardunbide egokiak ezartzean.

Enpresa esleipendunak aurrezte-sistemak erabili behar ditu, eta uraren kontsumoa minimizatzeko teknikez eta prozedurez baliatu behar da.

Bestalde, garrantzitsua da kontsumorako erabiltzen den urak duena baino kalitate kaskarragoko ura erabiltzea, edo kontuan izatea enpresa lizitatzailerik berreskuratutako ura erabiltzeko egiten dituzten proposamenak (euri-ura berreskuratzeko instalazioen bidez, adibidez).

Beharrezkoa da, halaber, erabilitako ura egokiro kudeatzen dela bermatzea, hondakinen eta likidoen (euri-ura barne) arteko harremana murrizteko beharrezkoak diren neurriak hartuta, ubide naturaletara isuriak egitea saihestuz eta uraren berrerabilpena ureztapenerako lehentziz (posible bada).



3.4. Zerbitzuaren kudeaketa eraginkorra

Enpresa lizitatuak zerbitzua optimizatzeko proposamenak egin behar dituzte eragiten duten ingurumen-inpaktua eta uraren eta erregaien kontsumoa murrizteko.

Horretarako oso baliagarria da zerbitzua nola ari den gauzatzen islatzen duten datuak denbora errealean jasotzea kudeaketa- eta kontrol-plataforma oso baten bidez. Horrela, hainbat datu lortu eta erregistratu daitezke, eta horrek informazioaren kudeaketa errazten du, eta, horrenbestez, erabaki egokiak hartzen laguntzen du.





3.5. Kaudimen tekniko eta profesionala

Zerbitzu honek ingurumenean eta osasunean duen garrantziagatik, enpresa lizitatuak bere kaudimen teknikoaren eta profesionalaren bidez, kontratua ahalik eta ingurumen- eta lan-berme handienekin gauzatzeko eska dakieke. Hala, enpresei eska dakieke zerbitzuarekin lotuta dauden ingurumen-alderdietan prestatuta dagoen koordinatzaile bat izateko edo kontratua gauzatzean ingurumen-kudeaketarako jardunbide egokiak aplikatzeko.

Atal honetan, proportzionaltasun printzipioari eusteko, lehiakortasuna ez eragozteko eta ETE-ek sarbidea ez saihesteko aintzat hartu behar da kontratuaren tamaina.

4. Ingurumen-ziurtagiriak

Zerbitzu hauei dagokienez, zerbitzuan erabiltzen diren produktu batzuentzako hainbat ingurumen-ziurtagiri ofizial daude (I motakoak). Taula honek ziurtagiri nagusiak jasotzen ditu eta ziurtagiri bakoitza zer produkturi ezartzen zaion erakusten du:

| | ETIKETA | EUOPAR BATASUNeko ETIKETA EKOLOGIKOA | AINGERU URDINA (ALEMANIA) | BELTXARGA ZURIA (HERRIALDE NORDIKOAK) | EKODISEINUAREN ZIURTAGIRIA UNE-EN ISO 14006 |
|----------------------------------|---|---|--|---|---|
| LOGO OFIZIALA |  |  |  |  | |
| GARBIKETA- PRODUKTUAK | ● | | | ● | |
| ZABOR- POLTSAK | | | ● | | |
| EDUKIONTZIAK | | | ● | | ● |
| ZABORRA BILTZEKO KAMIOIA | | | ● | | |
| BIDEAK ERRAZTATZEKO MAKINA | | | ● | | |

Ingurumenaren ikuspegitik errespetutsuagoak diren produktuak erostean edo enpresa lizitzaileei produktu horiek eskatzean bereizgarri hauek proba gisa balioko digute.

Industria-erabilera duen makinariari dagokionez, orain arte aingeru urdina etiketak ziurtatu izan ditu udal ibilgailuak deiturikoak, hau da, hondakinak biltzeko kamioiak, bide-garbigailuak edo autobusak. Aingeru urdina etiketak ziurtatzen dituen ezaugarrien artean bizitegi-eremuetako zarata-murrizketa eta emisioen eta partikulen murrizketa daude, besteak beste.

Azkenik, zerbitzuaren ingurumen-garapenarekin lotuta, enpresek ingurumena kudeatzeko sistema (IKS) nagusietako bateko agiria izan dezakete (EMAS, ISO 14.001, Ekoscan...). Pleguetan, gaitasun tekniko irizpide gisa honako hau exijitu ahal izango da: kontratua gauzatzeko prozesuan, ingurumen-kudeaketako jardunbide egokiak sistematikoki aplikatzen direla bermatzea. Enpresaren lan-prozedura eta -jarraibideen bitartez edo zuzenean kontratuaren xede den zerbitzua barne hartzen duen ingurumen-kudeaketako sistemaren baten bidez egiaztatu ahal izango da. Ez da ingurumen-kudeaketako sistema bera baloratuko, baina gaitasun tekniko edo profesionalaren betekizuntzat jotzen diren ingurumen-irizpideak betetzen direla egiaztatzeko balioko du. Harreman argia egongo da beti emandako ingurumen-kudeaketako tresnen eta egingo diren zerbitzuen artean.



5. Merkatuaren egoera: dagoen eskaintza

Baliabide materialei dagokienez, gaur egun bi markek eskaintzen dituzte aingeru urdinaren etiketa duten ibilgailu-mota horiek. Dena den, eskaintza zabalik ez denez lizitazioan irizpide hau sartu baino lehen, merkatuko azterketa sakona egitea gomendatzen da. Badira, halaber, aingeru urdinarekin egiaztatutako edukiontziak; hala ere, egungo merkatuan aurki daitezkeela ziurtatu beharko da; azkenik, merkatuan etiketa-mota hori duten zabor-poltzen eskaintza handia dago.

Enpresei dagokienez, Euskadin hondakinak biltzen eta garraiatzen lan egiten duten enpresetako askok ISO 9001 eta ISO 14001 kalitate-ziurtagiriak dituzte. Bestalde, Euskadin lan egiten duten garbiketa-enpresen erdiek ISO 9001 eta ISO 14001 kalitate-ziurtagiriak dituzte. Enpresa horietako batzuek ISO 50001 (energia-kudeaketa) eta ISO 27001 (informazioaren segurtasunaren kudeaketa) ziurtagiriak dituzte.



6. Ingurumen-irizpideak

6.1. Prozedura ireki bidez kontratatzeko eta lehiaketa publiko bidez esleitzeko irizpideak

Kontratazio-mota honetarako proposatzen diren irizpideak Ihoberen webgunean daude eskuragarri (<http://www.ihobe.eus>, Jarduera-eremuak > Erosketa publiko berdea). Kapitulu honetan hiru eskakizun-maila proposatzen dira: oinarriko maila, maila aurreratua eta bikaintasunekoa.

Eskakizun-maila aukeratu ondoren eskakizun-maila hori hura aplikatu behar duen administrazioari ondoen egokitzen zaiona izango da maila bakoitzean ingurumen-irizpideez gain (zehaztapen teknikoak) esleipen-irizpideetarako eta eskaintza teknikoaren edukirako proposamenak aurkituko dituzu. Lizitatzailleek informazioa nola aurkeztu behar duten azaltzen duen azken atal honek eskatutako informazioa errazago biltzeko balio du. Kapitulu hau hornitzailerentzako egiaztapen-zerrenda batekin osatzen da; zerrenda hori webgunean ere eskuragarri dago, eta baldintza teknikoen orriari erantsiko zaio irizpideak betetzen direla egiaztatzeko moduei buruzko informazioa gordetzen baitu.